

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 5607

*AGINDUA, 2023ko abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2023-2024 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten diena zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioei.*

2004ko azaroaren 19an argitara eman zen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituena; hain zuzen ere, 2., 3., 4., 5., 6. eta 11.a, eta lehen, bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak. Azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan. Hain zuzen ere, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuan finkatzen diren lehentasun-irizpideen artean daude adin-tarte horretako eskaintza estaltzea eta titulartasun publikoko haur-eskolak sustatzea, gaur egungo eskaintza finkatzearen. Irizpide horiei jarraituz, honako hau ematen da aditzera 297/2002 Dekretu horretako bigarren xedapen gehigarrian: «Gaur egungo udal-titulartasuneko haur-eskolen eskaintza sendotu ahal izateko, hezkuntzako Administrazioak hitzarmenak egingo ditu dekretu hau indarrean sartu baino lehen haur-eskolak sortu dituzten toki-korporazioekin».

Bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, era berean, «xede horrekin, ikasturte bakoitzaren hasieran Hezkuntza Sailak deialdi bat egingo du 0-3 urte bitarteko haurrei arreta eskaintzen dieten haur-eskoletako arduradunak diren toki-korporazioekin lankidetzak hitzarmenak sinatzeko; bertan zehaztuko dira finantzaketaren kantitateak, horretarako aurreikusitako aurrekontu-sailaren kontura izango direnak. Hitzarmen horien indarraldia ikasturte osoan luzatuko da, eta urtero berrituko dira. Finantzaketaren kantitateak zehazteko, haur-eskolan betetako plazak hartuko dira kontuan, bai eta ikasturtean izandako plazen bariazioa ere».

Era berean, agindu hau 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da. Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez onartu zen plan hori, eta bertan jasotzen da deialdi hau.

Xedapen horiek betez, agindu honen xedea da dirulaguntzak ematea haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, kostuak murrizteko eta udal-titulartasuneko haur-eskoletan egungo eskaintza finkatzeko, zero urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzat, 2023-2024 ikasturtean. Horretarako, finantzaketa egin aurretik, urtero sinatuko dira Hezkuntza Sailaren eta udal horien arteko lankidetzak hitzarmenak.

Hezkuntza Sailak hitzarmena sinatzen duen udal bakoitzari egingo dizkion ekarpen ekonomikoak udal-titulartasuneko haur-eskolan okupatutako postuen arabera finkatuko dira. Okupatutako plaza bakoitzarengatik emango den kantitatea zehaztutako moduluaren balioaren % 60 izango da 0-1 eta 1-2 adin-tartean kasuan, eta % 100, berriz, 2-3 adin-tartearen kasuan.

Era berean, azaroaren 11ko 171997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuko Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzak arautzeari buruzkoan, jasotako xedapenen arabera jokatu da, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubideari buruzko xedapenen eta arau-hauste eta

zehapenen araubideari buruzkoetan ezarritakoaren arabera, bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusien kargura egiteko den gastu espedienteen tramitazio aurreratua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoa oinarritzat hartuta,

Honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da 0-3 urteko haurrentzako haur-eskolen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea. Helburu hori lortzeko, 3.500.000 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura.

##### 2. artikulua.– Helburua.

Agindu honi dagozkion dirulaguntzak udal-titulartasuneko zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako haur-eskolen mantentze-kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira.

##### 3. artikulua.– Onuradunak eta bete beharreko baldintzak.

1.– Haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik sortutako haur-eskolak badira. Bere garaian Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak eskualdatutako haur-eskolen titular diren udalek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Haurreskolak Par-tzuergora bildu ez badira eskabideak aurkezteko epea hasten denerako.

2.– Laguntzarik eman edo ordaintzeko, amaituta egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomikoek emandako izaera bereko laguntzak edo dirulaguntzak direla-eta hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura oro.

3.– Ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten jardueri, ez eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute neurriak ezarri dituztela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.

4.– Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan azaldutako egoeraren batean dauden erakundeak.

##### 4. artikulua.– Betebeharrak eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du laguntzak eskatu dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikulua betez.

2.– Eskabideetan jasota egongo da laguntza eskatzen duten pertsonak edo erakundeek aukera izango dutela organo kudeatzaileak dokumentu horiek lortu edo egiaztatzearen aurka egiteko. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dokumentuak.

3.– Ez da berriro aurkeztu behar lehenagoko deialdietan Administrazioan aurkeztutako dokumentaziorik. Alde horretatik, interesdunak adierazi beharko du noiz eta Administrazioaren zer organismotan aurkeztu zituen.

4.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 eta 6. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuta, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da, honako betebeharrak hauek egiaztatzeko:

a) Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso badira edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik, hala adieraztea.

b) Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez du izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan.

c) Bete beharreko itzulketa-prozedura guztiak bukatuta egotea azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko esaten duen bezala.

d) Eskatzailea ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeraren batean.

5. artikulua.– Plaza bakoitzari esleituko zaion diru-kopurua.

Okupatuta dagoen postu bakoitzeko zenbatekoa agindu honetako 7. artikuluan ezarritako moduluaren % 60 izango da, 0-1 eta 1-2 adin-tartean kasuan, eta % 100, 2-3 adin-tartean, deialdi honetan ezarritako salbuespen eta baldintzen arabera.

6. artikulua.– Diruz lagundu beharreko postu-kopurua zehaztea.

Eskola bakoitzak EAEko unibertsitateaz kanpoko ikasleen erregistro-aplikazioan sartuko ditu 2021, 2022 eta 2023an jaiotako haur guztien matrikularen datu banakatuak eta baimendutako ikasgeletan adinaren araberrako banaketa. Deialdi honen eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzak aterako ditu datuak aplikaziotik, eta kontuan hartuko ditu zentro bakoitzak jasoko dituen zenbatekoak kalkulatzeko. Laguntza hauek kudeatzeko erabiltzen diren ikasleen datu pertsonalak hauek dira:

– Izena eta bi abizen.

– Jaioteguna.

Ez dira matrikulatutzat joko 2023ko azaroaren 15az geroztik jaiotako haurrak.

2023ko maiatzaren 15a baino lehenago jaiotako umeei ikasturte osoko dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute, hau da, 2023ko irailetik 2024ko uztaile bitartean.

Matrikulatuta dauden gainerako haurrek irizpide hauen arabera izango dute laguntza jasotzeko eskubidea:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean jaiotakoek, 2023ko urritik 2024ko uztaile bitartean.

Ekainaren 16tik uztailaren 15era bitartean jaiotakoek, 2023ko azarotik 2024ko uztaiera bitartean.

Uztailaren 16tik abuztuaren 15era bitartean jaiotakoek, 2023ko abendutik 2024ko uztaiera bitartean.

Abuztuaren 16tik irailaren 15era bitartean jaiotakoek, 2024ko urtarriletik uztaiera bitartean.

Irailaren 16tik urriaren 15era bitartean jaiotakoek, 2024ko otsailetik uztaiera bitartean.

Urriaren 16tik azaroaren 15era bitartean jaiotakoek, 2024ko martxotik uztaiera bitartean.

7. artikulua.– Moduluak haur bakoitzeko.

1.– Honako hauek dira moduluak haur bakoitzeko eta adin-tarte bakoitzeko:

Adin-tartea	Modulua	Laguntza
0 urte	7.994,44 euro	4.796,66 euro
1 urte	4.919,65 euro	2.951,79 euro
2 urte	3.553,08 euro	3.553,08 euro

2.– Lehenengo artikuluan ezarritako zenbatekoa nahikoa ez bada egin diren eskaera guztiei erantzuteko, ateratzen den zenbatekoa hainbanatu egingo da, guztizko zenbateko hori ezarri den mugara egokitzeko.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0096913>

2.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta horri erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute, eurek aukeratzen duten hizkuntzan. Era berean, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan.

3.– Deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Eskabidearekin batera (I. eranskina), honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) 2023-2024 ikasturtean eskatutako eta/edo jasotako laguntzen zerrenda (II. eranskina).

b) 2023-2024 ikasturtean zerbitzua garatu ahal izateko udalak haur-hezkuntzako eskolari esleitu dion aurrekontu-esleipena. Bereizi egin behar dira sarrerak (familiek jartzen dituzten kuotak barne) eta gastuak, eta adierazi egin beharko da jardueraren ondorioz sortzen den defizita (III. eranskina).

c) Haur-eskolako hezkuntza-langileen zerrenda (IV. eranskina).

5.– Hezkuntza-proiektua haur-eskolan gordeko da, eta agindu honen 16. eta 17. artikuluetan ezarritako jarraipen-batzordearen esku geratuko da. Hezkuntza-proiektu horrek honako hauek hartuko ditu barnean, besteak beste:

- a) Haur-kopurua, adinaren arabera, taldekatzeko irizpideak, unitate-kopurua, adinaren eta hizkuntza-ereduaren arabera.
- b) Unitate bakoitzeko haur-hezitzaileen zerrenda, honako hauek jasoz: lan-egoera, titulazioa eta hizkuntza-gaitasuna. Laguntza-langileen zerrenda ere jasoko da.
- c) Haur-eskolak 0-3 urte-bitarterako eskaintzen dituen egutegia, ordutegiak eta zerbitzuak: jantokia, mediku- eta osasun-laguntza, laguntza psikologikoa, guraso-eskola...
- d) Hezkuntza-arloko jarduketak dituen balio, helburu eta lehentasunen definizioa.

Halaber, Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak egiaztatu ahal izango du udalek aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

#### 9. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Udal interesdunek bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte, prozedura honen izapideak eskatu, kontsultatu eta burutzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

2.– Izapidetze elektronikoa honako hauetan dago arautua: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, eta Platea E–Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Teknologiako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta deialdi hau osatzen duten gainerako ereduak bide elektronikoz izapidetzeko zehaztapenak eskuragarri daude, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0096913>

Eskabidearen ondorengo izapideak, zuzenketak, justifikazioak eta errekursoak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

#### 10. artikulua.– Prozedura izapidetzea eta eskaerak zuzentzea.

1.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak izapidetuko du prozedura.

2.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eskabidean hutsik edo akatsik atzematzen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, huts edo akats horiek zuzentzeko. Hamar egunak igarota zuzendu ez baditu, eskatzaileak eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko Legearen 21. eta 68.1 artikuluetan aurreikusitako moduan idatzi beharreko ebazpena eman ondoren.

#### 11. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak emango du deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabete

baino lehenago. Ebazpen hori udal eskatzaileei jakinaraziko zaie, banan-banan eta bide elektronikoz, eta emandakoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, denek jakiteko.

Ebazpenak bide elektronikoz jakinarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atala erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Epea amaitu eta interesdunei ebazpenik jakinarazi ezean, eskabidea ezetsi dela ulertu ahal izango da.

3.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

12. artikulua.– Hitzarmenak.

Onartutako dirulaguntzak eman eta onartzeko, agindu honetako V. eranskinean jasotako hitzarmena sinatuko dute Hezkuntza Sailak eta laguntza jaso duten eskolen titular diren udalek. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpena interesdunei jakinarazten zaienetik aurrera.

13. artikulua.– Laguntzak jaso eta dagozkion frogagiriak aurkeztea.

1.– Dirulaguntza bi epetan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa, % 30ekoa, 12. artikuluan aipatzen den hitzarmena sinatu ondoren gauzatuko da.

b) Bigarren ordainketa, % 70ekoa, dirulaguntzaren onuradunak 2023-2024 ikasturtean izandako gastu eta diru-sarreraren agiri bidezko justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da; justifikazio hori udal-idazkariaren edo kontu-hartzailearen ziurtagiri bidez egingo da. Inprimaki-eredua (VI. eranskina) <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0096913> egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri.

Justifikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Frogagiriak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 1etik 31ra arte izango da, eta Hezkuntza Sailaren Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzan aurkeztuko dira.

3.– Ikasleen datuak aztertu eta gero, Administrazioak eskubidea izango du Hezkuntzako sailburordeak emandako kitapen-ebazpenean onuradunei emandako diru-kopuruak doitzeko, betiere onuradunari entzun eta gero. Emandako laguntza gutxitzea beharrezkoa bada, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren prozedurarekin bat egingo da.

4.– Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon ezean, edo erregistro horretan dauden banku-datuak aldatu nahi izanez gero, helbide honetan egin beharko dute: <http://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

5.– Haur-eskolek jarraipen-batzordearen eskura jarriko dute 2023-2024 ikasturtean egindako ekintzei buruzko txostena. Txosten horrek atal hauek izango ditu, gutxienez:

a) 2023-2024 ikasturtearen garapen orokorra eta egin beharreko jarduerak.

b) Haur-eskolako hezkuntza-proiektuan adierazitako helburuen betetze-maila.

c) Eraitzen azterketak, programa egokia den edo aldatu behar den zehaztuta.

#### 14. artikulua.– Bateragarritasunen araubidea.

1.– Deialdi honen bidez lortutako dirulaguntza bateragarria izango da hezkuntza-arloan eskumenik ez duten herri-administrazioen menpe dauden organoen edo entitate pribatuen bidez lortutako beste edozeinekin. Alabaina, dirulaguntza guztien batura ezin izango da gastuaren % 100 baino handiagoa izan. Halakorik gertatzen bada, egindako gastutik gora jasotzen den kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera dagokion dirulaguntzari.

2.– Dena dela, dirulaguntza jasotzen duen udalak nahitaez eman beharko dio xede bererako lortu dituen beste dirulaguntza edo laguntzen berri dirulaguntza hau eman dion administrazioari, horrela xedatzen baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA).

#### 15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako dirulaguntzen erakunde onuradunek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako betebeharez gainera, eta finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriez gainera, honako betebeharrak hauek izango dituzte, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko Legearen 18. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan jasotakoarekin:

1.– Eska daitekeen betebeharrak oro, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

2.– Era berean, dirulaguntzaren onuradunak nahitaez lagundu beharko du administrazio emai-leak egiten dituen egiaztapen-ekintzetan eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontrol-ekintzetan, hala agintzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak.

3.– Emandako dirulaguntza onartu beharko du udal onuradunak, dirulaguntza emateko jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean dirulaguntzari espresuki eta idatziz uko egiten zaionean izan ezik. Halakorik gertatzen ez bada, onartzen dela ulertuko da.

4.– Orobat, hala eskatzen zaionean, udal onuradunak laguntzaren xede den proiektuaren garapenari buruzko informazio eskainiko dio jarraipen batzordeari.

#### 16. artikulua.– Jarraipen–batzordea.

Hezkuntza Sailak eta kasuan kasuko udalak izenpetu behar duten eta 12. artikuluan aipatzen den hitzarmena behar bezala gauzatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da. Honako kide hauek izango ditu batzordeak:

- Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo haren ordezkaria, presidentea izango dena.
- Hezkuntzako ikuskatzaile bat, ikuskatzaile nagusiak izendatua.
- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari jardungo duena.

#### 17. artikulua.– Jarraipen–batzordearen eginkizunak.

1.– Jarraipen-batzordeak, berak finkatutako prozeduraren arabera, hitzarmena eta hezkuntza-proiektua (haur-eskolak gordeko duena) noraino betetzen diren ikuskatu ahal izango du.

2.– Horretarako, jarraipen-batzordeak, 13.1 artikuluan aurreikusitako bigarren ordainketa egin baino lehen, udalek eskaerarekin batera aurkeztutako datuak aztertu ahal izango ditu. Batzordeak, hala behar izanez gero, bere egitekoak betetzeko beharrezko deritzen dokumentuak eskatu ahal izango dizkie udalei. Dokumentu horien arabera, dagokion txostena egin ahal izango du. Txosten hori Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara bidaliko da, eta aldekoa izanez gero, azken ordainketa egingo da. Nolanahi ere, txosten hori udal bakoitzaren eskura egongo da.

18. artikulua.– Ez betetzeak eta itzultzeko prozedura.

Laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, jasotako kopuruak eta berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko Lege Orokorraren 37. artikuluan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Eta batez ere, kasu hauetan:

- a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Laguntza zertarako eman den, horretarako ez erabiltzea.
- c) Behar diren baldintzak bete gabe lortzea laguntza.
- d) Agindu honen 15. artikuluan ezarritako betebeharren bat ez betetzea.
- e) Jardueraren kostua behar baino gehiago finantzatzea.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa. Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Laguntzak eta dirulaguntzak haur-eskolei eta irakaskuntza espezializatuei.

– Arduraduna: Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

– Helburua: udal titulartasuneko 0-3 urte bitarteko haur-eskolak diruz laguntzea, eta baita, musika eta arte plastikotako ikastetxeak ere.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak: Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

– Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-capa2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra [www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak Bermatzekoa: [www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)



## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura egiteko diren gastu-espeditenteen alde zuzeneko tramitazioa arautzen duenak, 5.3 artikuluan xedatzen dituen ondorioetarako, agindu honen dirulaguntzak ebazteko, beharrezkoa da kreditu nahikoa eta egokia egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko aurrekontu orokorretan.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan araututako laguntzek ez dituzte betetzen EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baldintza guztiak; beraz, ez dira estatu-laguntza, eta ez da beharrezkoa Europako Batzordeari jakinaraztea.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Prozedura-gaietan agindu honek arautzen ez duenerako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoa aplikatuko da.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Hezkuntzako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea izango da, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari baimena ematen zaio agindu hau betetzeko beharrezko diren jarraibide guztiak eman ditzan.

## AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 1a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## I. ERANSKINA

## Eskabide elektronikoa

UDAL-TITULARTASUNeko 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAUR-ESKOLETARAKO  
LAGUNTZAK- HAURMUNI

Organo instruktore honi zuzenduta:

IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

## Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

## Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

## Jakinarazpenak eta komunikazioak

Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

## Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

**Elektronikoa:** Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

*Kanal elektronikoaren gaineko oharra Jakinarazpen elektronikora sartzan ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.*

## Abisuak jasotzeko datuak

**Nire karpetan** jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Telefono mugikorra: \_\_\_\_\_

## Komunikazio hizkuntza

Mezu elektroniko eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

 Euskara  Gaztelania

Datu orokorrak

Zein lurralde / probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak

## Erantzukizunpeko adierazpenak

## Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).
- Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).

## Beste adierazpenak batzuk:

- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean.
- Ez dauka egin gabeko betebeharririk ezin diru-laguntza itzultzeko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- Eskatzailea ez dago diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. Artikuluko 2. eta 3. zerbakiaren jasotako egoera batean.
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudak dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

## Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Dirulaguntzak: haur-eskolei eta irakaskuntza espezializatuei.

**Arduraduna:** Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

**Helburua:** 0-3 urte bitarteko udal titulartasuneko haur eskolak diruz laguntzea, eta baita, musika eta arte plastikotako ikastetxeak ere.

**Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

**Hartzaileak:** Ekonomia eta Ogasun Saila

**Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

**Informazio osagarria:** gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua ([www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-capa2-eu.shtml))

**Araudia:**

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf))

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak

Bermatzekoa. ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

## Ofizioz konprobatzea

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia)
  - ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- Interesdunak, aurka egiten dionean izan ezik. [Erabili aurka egiteko eskubidea](#)

## Hurrengo dokumentua kontsultatzeko baimena ematen dut:

Aurkeztutako dokumentuaren izena	Emate-data	Emate-organoa

## Honek elektronikoki izenpetuta:

--

**II. ERANSKINA**  
**2023-2024 IKASTURTERAKO ESKATUTAKO EDO**  
**JASOTAKO LAGUNTZEN ZERRENDA**

Eskaera-eguna	Erakundea	Egoera	Emandako zenbatekoa
<b>Guztira</b>			

## III. ERANSKINA

## 2023-2024 IKASTURTERAKO AURREKONTUA

## SARRERAK

Kontzeptua	Entitatea	Zenbatekoa
2023-2024 ikasturterako jada emanda dauden dirulaguntzak		
Familiak jarritako kuoten ondoriozko sarrerak		
Beste kontzeptu batzuk		
<b>GUZTIKO SARRERAK</b>		

## GASTUAK

Kontzeptua	Zenbatekoa
Pertsonal-gastuak	
Funtzionamendu-gastuak	
Haur-eskola eguneratzeko eta mantentzeko gastuak	
Beste gastu batzuk	
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	

SARRERAK, GUZTIRA	
GASTUAK, GUZTIRA	
<b>DEFIZITA</b>	

**IV. ERANSKINA**  
**HEZKUNTZA-LANGILEEN ZERRENDA 2023-2024**

Izena	Titulazioa	Lan-egoera	Euskara-titulazioa

## V. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ETA «UDALA»(E)KO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, UDAL-TITULARTASUNEN ZERO ETA HIRU URTE ARTEKO HAUR-ESKOLAK FINKATZEKO.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko.....ren..an

### BILDUTA

Batetik, Jokin Bildarratz Sorron jauna, Hezkuntzako sailburua.

Bestetik, «Izena» jauna/andrea, «UDALA»(e)ko alkatea.

### ADIERAZI DUTE

Lehenik.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko .....aren ....(e)ko Aginduaren bidez ( abenduaren ..(e)ko EHAA), dei egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko udalei udal-titulartasuneko zero eta hiru urte arteko haurrentzako haur-eskolan gaur egungo eskaintza finkatzeko laguntzetarako eskaerak aurkez zitzaion.

Bigarren.– «UDALA»(e)ko Udalak, Haur Hezkuntzaren arloan egiten duen lanaren barruan, laguntzak jasotzeko eskaera aurkeztu du, aipatutako aginduari jarraituz.

Hirugarren.– Hezkuntza Sailak, agindu honetan xedatutakoari jarraituz, hitzarmen hau sinatzen duen «UDALA»(e)ko Udalak aurkeztutako eskaera onartu du. Hona hemen hitzarmen horren

### KLAUSULAK

Lehena.– Lege-esparrua.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko .....aren ..ko Aginduan oinarrituta dago hitzarmen hau. Agindu horren bitartez, dei egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko udalei udal-titulartasuneko 0 eta 3 urte arteko haurrentzako haur-eskolak mantentzeko laguntzetarako eskaerak aurkez zitzaion.

Bigarrena.– Helburua.

Hitzarmen honen helburua hitzarmen hau sinatzen duen Udalaren titulartasuneko haur-eskolaren kalitatea mantentzen eta areagotzen laguntzea izango da, betiere 2023ko irailaren 1etik 2024ko uztailaren 30era arte.

Hirugarrena.– Egin beharreko hezkuntza- eta laguntza-ekintzak.

Burutu beharreko ekintza horiek, hain zuzen, Udalak haur-eskolarako landu eta mantendu behar duen hezkuntza- eta laguntza-proiektuan zehaztuko dira; proiektu hori, bestalde, hitzarmenaren jarraipen-batzordearen esku egongo da.

Laugarrena.– Hartzaileak.

Hitzarmen honen hartzaile zuzena hitzarmen hau sinatzen duen udalaren titulartasuneko haur-eskola da eta, azken finean, haur-eskola horretan seme-alabak dituzten familiak.

Bosgarrena.– Batzuen eta besteen ekarpenak.

Helburuak lortzeko eta proiektuetako ekintzak gauzatzeko, hitzarmena sinatzen duten alde



biak ados daude honako ekarpen eta konpromiso hauek betetzeko:

A) Udal sinatzaileak:

A.1.– Ekarpinak.

– Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri dituenak, zehaztu dituen giza baliabideak eta baliabide materialak.

– Haur-eskolaren kontrola, antolakuntza, administrazio-lanak, garbiketa, mantentze-lanak eta beste zerbitzu batzuk egiteko eta bermatzeko behar beste langile egoki.

– Une oro hezkuntza-proiektua bermatzeko behar beste baliabide ekonomiko izatea. Hezkuntza Sailak eman ditzakeen dirulaguntzen bitartez lor daitezkeen baliabide ekonomikoez gain.

A.2.– Konpromisoak.

– Hezkuntza Saitetik jasotako dirulaguntza udal-titulartasuneko haur-eskola mantentzeko erabiltzea.

– Dirulaguntza jaso duen proiektuaren garapenari buruzko informazioa helaraztea Jarraipen Batzordeari, eskatzen denean.

B) Hezkuntza Sailak:

Ekarpin ekonomikoak

– Hezkuntza Sailak udal sinatzaileari «euroak» euroko dirulaguntza emango dio 2024ko.....ren..ko Ebazpenaren bidez (2024ko .....ren..ko EHAA). Dirulaguntza horren bitartez udal sinatzailearen titulartasuneko haur-eskolan 0 et 3 urte arteko plazen kostua finantzatzeko laguntza bideratuko da 2023-2024 ikasturtean.

Horretarako eratuko den Jarraipen Batzordeak ikuskatuko du laguntzaren erabilera.

Seigarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko epeak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurreko klausulan aipatutako dirulaguntza honako epe hauen barruan ordainduko du:

1.– «euroak1» euro, hitzarmen hau sinatu ondoren, eta Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena jakinarazi ondoren, hitzarmen honetako lehen klausulan aipatzen den 2023ko .....aren ..ko Aginduaren arabera.

2.– «euroak2» euro, gastuen egiaztagiria aurkeztu ondoren, aipatutako 2023ko .....aren ..ko Aginduko 13. artikuluan azaltzen den moduan.

Zazpigarrena.– Hitzarmena ez betetzea eta itzultzeko prozedura.

Udal sinatzaileak dirulaguntza eskatu eta eman zen helburuetarako erabiltzen ez badu, dirulaguntzaren bidez egin beharreko jardura betetzen ez badu, hasierako helburuak lortzeko erabili izana egiaztatzen ez badu, edo orokorrean, 2023ko .....aren ..ko Aginduan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan edo hitzarmen honetan zehaztutako eginbeharrak betetzen ez baditu, jasotako diru guztia itzuli egin beharko du

dagozkion lege-interesekin batera. Interesak abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan erabakitako prozeduraren arabera zehaztuko dira.

Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2024ko uztailaren 30era arte egongo da indarrean.

Bederatzigarrena.– Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta hala hartuko da kontuan, hitzarmena betetzeko orduan gerta daitezkeen arazoak ebazteko.

Interesdunak ados daude, eta honelako bi kopia sinatu dituzte, goiburukoan zehaztutako tokian eta egunean.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON

«UDALA»ren alkatea,  
«IZENA»

## VI. ERANSKINA

UDAL TITULARTASUNeko 0-3 URTEKO HAUR-ESKOLENTZAKO  
LAGUNTZEEN JUSTIFIKAZIOA

Haur-eskola: \_\_\_\_\_

Udala: \_\_\_\_\_

## SARRERAK

Kontzeptua	Entitatea	Zenbatekoa
2023-2024 ikasturterako jada emanda dauden dirulaguntzak		
Familiek jarritako kuoten ondoriozko sarrerak		
Beste kontzeptu batzuk		
<b>GUZTIKO SARRERAK</b>		

## GASTUAK

Kontzeptua	Zenbatekoa
Pertsonal-gastuak	
Funtzionamendu-gastuak	
Haur-eskola eguneratzeko eta mantentzeko gastuak	
Beste gastu batzuk	
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	

SARRERAK, GUZTIRA	
GASTUAK, GUZTIRA	
<b>DEFIZITA</b>	